

SANCHES ROSSINI, M A. (2008)

*Educación es crear en la persona.* Madril: Narcea.

Liburuxka hau (ozta-ozta iristen da ehun orrialdera) ezer baino lehen esperientziatik idatzia izan dela esan dezakegu, hain zuzen, 36 urteko jardura profesionaleko perspektibatik, hitzaurrean bertan egileak aitortzen duen bezala.

Irakurlearekin gertutasuna eta erabilgarritasuna bilatzen duela agerikoa da hasiera-hasieratik eta oso urrun gelditzen da ezagutza teoriko edo ikerketa mailatik; zenbait autoreren aipuak han-hemenka azaltzen badira ere, ihes egiten dio hauen jatorri zehatza aitortzeari: kutsu teoriko eta urruna ekidin nahian hizkera zuzena, arrunta da liburuaren ezaugarria eta honekin batera atsegina izatea temati bilatu egin du ere, eskemak, grafikoak, marrazki eta adibide ugari horren lekuko.

Halaber, ahalezko irakurleak jakin beharko luke auto-laguntzarako argitaratzen diren horietakoen egitura aurkituko duela liburuxka honetan ere eta tankera horretan aurkituko ditu adibideak, gogoetarako galderak eta inplikaziozko proposamen zuzenak. Beste hainbeste ataletan banatutako gaiak ildo horretatik doaz: sakonki garatzeko asmotik urrun, eraginkorki planteatu nahi ditu. Honen ondorioz, ikuspuntu akademikotik orokorrekiak gelditzen dira — gutxienez ematen zaien trataerari erreparatuz— eta norbaitek iritsiko dio zenbaitetan inozoegiak direla *nor naiz ni?* Tankerakoaren kasuan edo planteamendu dualistak gure jarduteko erari atxikiak...

Laburbilduz, ez da harritzekoa norbaitek liburuxka bere osotasunean sinpleegitza hartzen badu baina zalantzarik ez dago irakats prozesuetan murgilduta dabilenari bere buruari oinarrizko galdera batzuk bideratzeko aukera ematen diola eta, zuzen edo zeharka, nola jokatu liteke aditzera eman ere.

*K. Burgoa*

ESCRIBANO, A. eta DEL VALLE, A. (Koord.) (2008)

*El aprendizaje basado en problemas. Una propuesta metodológica en Educación Superior.* Madril: Narcea.

Izenburuak adierazten duen eran, problemetan oinarritutako ikasketa eraren inguruan eratuta dago honako liburua eta biziki interesgarria eta gaurkotasun handikoa dela esan genezake ezer baino lehen. Bederatzi ataletan banatuta dago eta azkena, bere osotasunean, bost kasu praktikoe-tara bideratua dago, aurrekoetan ikusitako kasuistikak eremu praktikora nola eraman daitezkeen azalduz. Kasu eta ezagutza-arloko unibertsitateko irakasleek bideratuta, atalez atal ikusitakoa praktikara zuzendutako begirada honekin borobildu egiten da.

Pentsatzekoa denez, lehenengo atalek beren gain hartuko dute argipen kontzeptuala, ezaugarrien deskribapena, faseak, ikasle eta irakasleen pape-rak, errepasso historikoa, egungo egoera, tipologia, abantailak, oztupoak, ebaluaketak, tutoretzak... Modu orokorrean ikuspegi anitz eta osatua lortzeko tresna egokia kontsidera dezakegu honakoa. Eta ezagutza eta arazoaren alderdi ugarien berri ematez gain, irakurleak bere lan-eremurako iradokizunak aurkituko duela ziur egon gaitezke.

Hala ere, beti kontutan hartu beharrekoa da egile anitz dela liburuaren egituran eta zenbait momentutan agerikoa egingo da hau: orriak aurreratu ahala ezagunaren sentsazioa areagotu daiteke. Hala ere, honek badu alde erakargarria, oinarrizkoaren jabe izanez gero interesgarria dugun atalera jo baitezakegu zuzen zuzenean, aurreko atalen premiarik gabe.

Gaurkotasun handikoa liburu honen koordinatzaileak Alicia Escribano González eta Ángela del Valle López dira Castilla-La Mancha eta Complutense unibertsitatekoak hurrenez hurren eta beste kolaboratzaile guztiak unibertsitate hauetakoak dira ere: M.<sup>a</sup> Teresa Bejarano, Juan Lirio, Amparo Martínez, Asunción Manzanares, M.<sup>a</sup> del Carmen Palomares, Lidia Rodríguez eta Nuria Villa.

*J. M.<sup>a</sup> Montero*

## ALDEKOA, I. (2008)

*Euskal literaturaren historia*. Donostia: Erein.

2004. urtean Donostiako Irakasleen Unibertsitate Eskolako irakasleak argitaratu zuen *Historia de la literatura vasca* haren itzulpena dugu lan hau. Euskal literaturaren historia modernoa dugu hau, edo irizpide literarioetan oinarrituriko historia. Izan ere, egile eta liburu zerrendetatik urrunduz unean uneko egoerari erreparatuta idazlan literarioen azterketa sakona eskaintzen digu irakasle oñatiarrak.

«Niri gehien interesatu izan zaidana da gure kontzientzia modernoa garatzen nola joan den ikustea, esate baterako, XIX. mendetik aurrera. Alegia, nik idazle bati buruz idazteko orduan, aurretik imajinatu behar dut pertsona horrek nola ikusten zuen mundua, zer pentsatzen zuen, ze imajinario-tan bizi zen eta abar. Hori gabe ezin dut idatzi. Azken finean konturatzen zara historiak berak baduela sormen lan bat. Zuk kontakizun sinesgarri bat eraikitzen duzu eta historiak berak emango dizu benetan epaia horrela den ala ez. Hori bat, eta bi: abiapuntuko premisa da Euskal Herria Europa dela, gure kultura, kultura mendebaldarraren barruan bakarrik uler daitekeela. Paradigmak edo ereduak denonak izan dira: Europa osokoak» diosku Aldekoak elkarrizketa batean (HABE aldizkaria, 357. zenb.), eta horren ondorioa dugu azterketa interesgarri hau.

Liburua 21 ataletan banaturik dago eta arestian aipatu irizpide literarioak direla eta, lanaren bi heren XX. mendeko euskal literaturaz dira, gurea oso produkzio murrizta eta berria izan baita. Eta ikerketa lan honetara hurbiltzen denak, dela jakin-minak bultzatuta, dela euskal literaturaren berri izan nahi duelako, aukera paregabea izango du euskaraz sorturiko literatura eta, batik bat, azken urteotan idazlan eta idazle garrantzitsuenen nondik norakoa ezagutzeko.

Ahozko literatura, berzpizkundera, erreforma, kostunbrismoa... eta literaturan izaniko garai horien guztien ondoren modernotasuna dugu. Mirande eta Aresti ditugu garai horretako idazle nagusiak eta hauen ondoren, zehatz-mehatz aurkezten zaizkigu bizirik dauden euskal idazle garrantzitsuenen lanak.

Aldekoak aurretik argitaraturiko poesia eta narratibari buruzko lanek kritikari honen jakituria eta zehaztasunaren berri eman ziguten bezala, oraingo honek euskal literaturaren eta kritika korronte nagusiei buruz duen ezagutza zabala azaltzen digu. Bai eta aurretik eginiko historiekin hausteko asmoa ere, alde horretatik lehendik azalduriko ezaugarriez gain aipa daiteke Haur eta Gazte Literaturari buruz eginiko atala edo liburuaren ia erdia bizirik dauden idazleen lanei buruzkoa izatea. Hori horrela izanik, bat eginen dugu Hernandez Abaituarekin historia honek «lan sinkroniko txiki anitz

behar izan dituela aurreko Euskal Literaturaren gainerako historia guztiak baino harantzago joateko».

Amaierako «Azken gogoetak» atalean honako hau dio Aldekoak: «Unibertsitateko kritika (...) funtsezko baliabide bat da, hala ere, literatura, autoreak eta obrak instituzionalizatzeko prozesuan» (426. or.) eta liburu hau, *Euskal Literaturaren Historia* hau, dugu unibertsitateko kritika horren adibiderik onenetarikoa. Orrietan zehar azaldutakoak, baita ongi aukeraturako bibliografiak ere, literatura korrante, kritikaren eboluzioa edo euskal kulturak gure gizarte europarrean duen lekua ezagutzeko balio du, gure literatura eta geure burua hobeto ezagutzeko azken finean.

*Xabier Etxaniz Erle*

CUADRADO ESCLAPEZ, T. (2008)

*La enseñanza que no se ve. Educación informal en el siglo XXI.* Madrid: Narcea.

Oso liburu erabilgarria eta biziki interesgarria: izenburuak berak era egokian adierazten duen bezala, gaurkotasan itzela duen gaia jorratzen du. Ez liburu mardula, ezta sakona ere ez; aldiz, alde praktikoa igarri egiten zaio egileari nahiz ur sokonetarako gonbitea inplizituki antzeman ere. Gizartean mass-media deiturikoen eragina abiadura bizian joan da handituz, egungo maila ikaragarria iritsiz; hau gutxi ez eta teknologia berrien pisua gero eta handiagoa izango dela aurreikuspena baino, dagoeneko erabateko ziurtasuna da.

Curriculum ezkutuan egindako ibilbidea gaurkotzeko aukera dugu liburuxka honekin: ez da luze (151 or.) eta modu samurrean idatzia adibide dezenterekin. Lau atal ditu: lehenbizikoa hezkuntzaren inguruko gako batzuk ematen ditu (ikastetxearen haratagoko hezkuntza, gizarteratzeko era ezberdinak, hezkuntzaren eragileak, hezkuntza erak). Bigarreanean komunikazioa du ardatz: eredu komunikatiboak, herri kultura eta abar.

Gizarteratzeko eta «endokulturazio» deiturikorako prozesu berriei eskaintzen dio hirugarren atala eta (egiari zor) honakoa motz gelditzen da; gehiago sakontze eta garatzea espero bazen ere, hemendik egileak gaineratik pasatzen du laugarren atalari ekiteko eta —orain bai— gusturago mugitzen dela antzematen zaio, liburuaren muina hemen kokatuz (berak aitortzen duen bezala): ekoizpen kulturalak eta erabilera didaktikoa izeneko honetan gaurko adibideekin errebasoa egiten du kultura mota ezberdinetatik (liburuak, musika, moda, pintura), aisialdirako bideojokoak, marrazki bizidunak, komikiak, jostailuak...; mass-mediak (telebista, irratia, prentsa idatzia, zinema, publizitatea); bizitzeko erak (kotxeak, gaua, tabakoa, alkohola...).

Azken ekarpen interesgarria egiten du «Ondorioak» izeneko atalarekin, garbi utziz, gaur egun, hezkuntza ezin dela inondik ere kontsideratu eskola, familia edota erakundeen monopolioa. «Informal» heziketa hori nagusiki multinazionalen bulegoetatik gidatzen dela baieztatzen du eta kontsumitzaile gidatuak garela agerian jarri ere, teknologia berrien erabilera erreibindikatzailaren falta adibide gisa aipatuz.

*J.M.<sup>a</sup> Osinaga*

MATEOS, V.L. eta MONTANERO, M. (koord.) (2008)

*Diseño e implantación de títulos de grado en el Espacio Europeo de Educación Superior.* Madril: Narcea.

Unibertsitatean dabilen edonorentzat gauza jakina da aldaketa garaian bizi garela. Izan ere, Europako Goi Mailako Hezkuntza Esparrua eraikitzeke estatu desberdinek erabakia hartu eta hura garatzeko irizpideak zabaldu dituztenetik kanpo eskaera ugariri egin behar diote aurre unibertsitateek eta zentzu horretan esku artean dugun liburuak aztertuko duen gaiak berebiziko gaurkotasuna du.

2007.an 1393 Erret Dekretua jakinarazi zenez geroztik, Estatu Espainiarreko unibertsitateak buru-belarri sartuta dabilta gradu tituluen diseinu berrian. Egia da tituluak diseinatu egin direla lehenago ere, baina oraingo prozesuaren berezitasuna, zalantzarik gabe, zera da haiek proposatzeko unibertsitateei eman zaien autonomia maila altua. Laburki esanda, orain arte dugun sistemaren ezaugarri nagusienetako bat homogeneousasuna izan da, hau da, titulu guztien izaera eta ezaugarriak gobernuak eta lege organikoek araututakoak izan dira eta zentzu horretan unibertsitate bakoitzak zirrikitu gutxi izan ditu izaera propioa gauzatu ahal izateko. Une honetan, ordea, tituluen diseinuetan erabateko desregulazioa suertatzen ari dela esan daiteke, hau da, unibertsitate bakoitzak zein titulu eman nahi duen eta titulu bakoitzean zein diseinu eta garapen egin nahi duen erabakiko du, ondoren, hori bai, kanpoko kalitate agentziek kontrolatutako egiaztatze eta onartze prozesu bat gainditzeko derrigortasuna dutelarik. Beste modu batez esanda, titulu mapen eta diseinuaren ardura gobernuarena izatetik unibertsitate bakoitzarena izatera igaro da, eta zentzu horretan azken hauek orain arte ez zeuzkaten erabakimena eta askatasuna, baina aldi berean erantzukizuna eta sormena bereganatu behar izan dute.

Erronka ez da makala ez bakarrik orain arte unibertsitateetan horrelakorik ez delako egin, baizik eta gradu bakoitzak bere jarduna ikaslearen ikaskuntzaren ikuspegitik (gaitasunen arabera) modu koherentean eta esplizituan formulatu behar duelako baita lanbide soslaiak kontuan harturik

ere. Zer esanik ez honek oso ariketa konplexu bat egitera eramaten ditu unibertsitateak, euren tradizioetik eta ohiko jardueretatik oso urrun dagoen eskenatokira hain justu.

Egileek erronka horri aurre egiteko tresna eskaini nahi izan digute liburu hau idaztean, eta zehazkiago prozesuan hartu behar diren erabakien funtsak aztertu, ikasketa planen diseinua bera prozesu estrategiko gisara tratatuz. Helburu hori aintzakotzat hartuz, ANECAk 2007an argitara eman zuen *Protocolo de evaluación para la verificación de los títulos universitarios oficiales* izenekoaren atalak nagusiki banan banaka arakatzuz joango dira, bertan topa daitezkeen aukerak eta oztopoak behatuz eta irizpide posibleak arrazoituz. Gauzak horrela graduak izan behar dituzten ezaugarriez gain (240 ECTS kredituak eta beren transferentzia eta onespena, eta, ikasleen mugikortasuna) ikasketa plan baten atalak (graduaren deskripzio orokorra, helburuak, ikasleak, irakaskuntza, baliabideak etb.) zehaztasunez aztertzen dituzte. Horren ondoren ikasgai baten diseinuaren atalak jorratzen dituzte, azkenik esperientzia praktikoak ere irakurlearekin partekatuz.

Nire ustez egileek ondo islatzen dute une honetan hainbat unibertsitatetan bizi garena. Baita alboz bada ere, esperientzia praktikoetan ibilitako irakasle kopuru handi baten sentsazioa jaso ere: ariketa hauek guztiak laguntza baino zama baten modura sentitzen direla (279. orri) eta sarri askotan eraginkorrak ere ez direla. Egileen aburuz, zaila omen da «irakasleen hausnarketa artikulatzeko eta esplizitzatzeko protokoloak eta dokumentuak diseinatzea, euren aldetik batzuk behintzat gehiegi idazten ari direla somatu gabe» baina niri neuri beste galdera batzuk ere bururatzen zaizkit, alegia, protokolo hauen azken helburua irakasleen hausnarketa al da? Ala kanpotik kontrola eraman behar duenak bere funtzioa betetzeko tresnak izatea? Unibertsitate mailako irakaskuntza-ikaskuntza ariketa erabat arrazional baten arabera ekoiztu al daiteke, harreman sozialetatik, balioetatik eta botere gatazketatik salbuetsita baileuden?

Unibertsitateko irakasleok gure hezkuntza praktikak birpentsatu eta berreraiki behar ditugula ez dut zalantzarik egiten; beste kontu bat da nola egin litekeen eta hor oraindik asko dago egiteke tea ikertzeke.

*Idoia Fernandez*

PIKABEA TORRANO, I. (2008)

*Glosario del lenguaje. La Coruña: Netbiblo.*

Hizkuntza gaietan gabiltzanok, ondo jabetzen gara esparru honen konplexutasunaz. Filologian adituak direnen urte luzetako ekarpen bikainei sekulako begirunea eta eskertzea zor diegula begi bistakoa da.

Gaur egun jakina da hizkuntzak gizakiaren, hezkuntzaren eta gizartearen eremu ugarritan duela presentzia eta eragina, eta bere inguruko gertae- ren azterketak burutu ahal izateko diziplinarteko talde-lana eskatzen duela.

Ikuspegi honetatik, jakintza-esparru honetan aditu ezberdinak aritzen gara lanak jorratzen: filologoak, psikologoak, pedagogoak, medikuak, antropologoak, soziologoak eta abar. Zenbat eta gehiago ikertzen dugun, orduan eta nabarmenago jabetzen gara gure mugez eta gainerako esparrue- tako profesionalen premiaz.

Egin beharreko zereginetan, besteak beste, etorkizuneko profesionalen prestakuntza dago. «Glosario del lenguaje» izeneko liburu honek laguntza esanguratsua eskaintzen du prestakuntzan aritzen diren irakasle-taldeent- zat. Bestalde, ikasleen ikuspegitik, ezezagunak edo hain ezagunak ez di- tuzten kontzeptuen esanahiak kontsultatzeko lanabes interesgarria da.

Definizio laburrak dira, errazak, litekeena guztiz osatu gabeak, baina irakurle edo ikasleari entzun edo irakurri berri duen hitzaren azalpen azkarra emateko pentsatuak. Hizkuntzalaritzako, logopediako, soziolinguistikako, pedagogiako... ikasleak 3.000 inguru erdal hitz topatuko ditu hizkuntzari buruzko literatura zientifikoan sarritan agertzen direnak, modu laburrean de- finituak, hala nola, *afasia, output, ecolalia, lexicon, prevelar, quiasmo...*

Egileak berak aitortzen duen bezalaxe, ez da hizkuntzaren gramatikari buruzko testu liburua, bai ordea, kontzeptuen erabilera kolokialaren eta teknikoaren arteko zubia. Nire ustez, aipatzen ari garen liburuari eta bere tankerakoei esker ikasleentzat hizkuntzaren inguruko teknizismoak gertua- go daude beren ulerkuntza egokirako.

*Feli Etxeberria Sagastume*

## **JASOTAKO LIBURUAK**

KNAPCZYK, D. (2008)

*Guía de autodisciplina. Cómo trabajar los problemas de conducta en objetivos de autodisciplina.* Madril: Narcea.

MARCO, B. (2008)

*Competencias básicas. Hacia un nuevo paradigma educativo.* Ma- dril: Narcea.